

3.7.3. UDAL-ALORRAK. HIRI-EKOLOGIA ETA MUGIKORTASUNA. ENERGIA BERDEKO ZERBITZUA.

UDALAREN ERAIKIN ETA LURSAILETAKO INSTALAZIO BERRIZTAGARRIAK

Energia Berdeko Zerbitzuak udal eraikin eta lursailletako instalazio berriztagarren jarraipen teknikoa egiten du hiler, behar bezala dabiltzala ziurtatzeko. Horien artean daude 25 ikastetxe publiko, Ingurumen Hezkuntzako museoa eta Gaztediaren Etxeko instalazioak. Behin-behineko kalkuluen arabera, 218.482 kWh-ko ekoizpena eta 61.854,96 euroren diru-sarrerak daude.

2017-2018ko instalazio berriak

2017ko bigarren seihilekoan, energia-azterketak eta pleguak prestatzeari ekin zitzaion, eguzki-energia panel fotovoltaiko bidez sortzeko 3 instalazio gehiago, autokontsumo moduan, lizitatzeko:

- Bernat Etxepare ikastetxe publikoa (ezarritako potentzia: 20 kWp)
- Doña Mayor ikastetxe publikoa (ezarritako potentzia: 15 kWp)
- Txantreako liburutegi publikoa (ezarritako potentzia: 15 kWp)

Lizitazio-zenbatekoa: 121.000 € (BEZa barne)

Panel didaktiko berriak

2017ko bigarren seihilekoan, eguzki-plakei lotutako 2 panel didaktiko gehiago lizitatzeko prozesua hasi zen, 2 ikastetxetan matxuraturik zeuden sistemen ordez:

- Patxi Larrainzar ikastetxe publikoa.
- Vázquez de Mella ikastetxe publikoa.

Azken zenbatekoa: 14.269,49 €

Instalazio horiez gain, honako hauek ere badaude: etxeko ura berotzeko eguzki-instalazio termikoak udalaren kirol-ekipamenduetan, Buztintxuri HEn eta Milagrosako babespeko apartamentuetako eta geotermia edo biomasa bidezko instalazioak.

ĖSKOLA-PROGRAMAK

«Energia ezagutu, eta konta ezazu» programak lortu nahi du ikasleek are kontzientzia handiago izan dezaten energia-kontsumoaren gainean, energia aurrezteko norberaren zein taldeko ohiturak sustatzea, bai eta energia berriztagarren eta fosilen artean zer alde dagoen modu egokian jakin dezaten ere. Lehen Hezkuntzako (5. eta 6. mailak) eta Bigarren hezkuntzako-

(3. eta 4. mailak) ikasleendako dira lantegiak, eta ikastetxean bertan egiten dira, gaztelaniaz edo euskaraz. 2017an, 11 lantegi egin ziren, guztira, 10 Lehen Hezkuntzan eta 1 Bigarren Hezkuntzan. Orotara, 240 ikaslek parte hartu zuten (210 Lehen Hezkuntzan eta 30 Bigarren Hezkuntzan).

UDAL-ERAIKINETAKO ENERGIA-ZIURTAGIRIAK

Energia Berdeko Zerbitzuak laguntza teknikoa lizitatu zuen 2016an 39 udal-eraikinetan energia-ziurtagiria eskuratzeko. Nogawatio ESE SLU enpresak irabazi zuen, eta 2016ko azaroan hasi zituen lanak. Laguntza teknikoa 2017ko otsailean amaitu zen, eta 39 energia-ziurtagiri lortu ziren; horiek guztiak ontzat eman eta aurkeztu zituzten Nafarroako Gobernuaren erregistroan.

FIESTA PROIEKTU EUROPARRA

2014an, Europako Batzordeak FIESTA proiektua onartu zuen. Proiektu horren bidez 121.536 euroko laguntza eman zen (aurrekontu osoa: 162.084 euro), Iruñeko etxebizitzetan 150 ikuskapen energetiko egiteko eta infoenergiari buruzko erakusmahai bat sortzeko, besteak beste. Proiektua 2014ko urrian jarri zen abian, eta 2016ko irailaren 30ean amaitu. Ekintza teknikoak helburu guztiak beteta amaitu ziren.

Proiektuaren Iruñeko garapen teknikoari dagokionez, lan hauek egin ziren 2017an:

- Udalerriko etxebizitzetan energia-ikuskapenak kudeatu eta gauzatu. 2017an 100 ikuskapen egin ziren, eta 195 proiektua amaitu zenerako (hasierako helburua 150 ikuskapen egitea zen).
- Energia Berdeko Zerbitzuan (EBZ) Energy Helpdesk izeneko kudeatu, gai hauetan aholkularitza behar duten pertsonendako: energia-kontsumoa, fakturak, energia-aurreztearen zein-efizientzia, energia berriztagarrien sorrera eta autokontsumoa.
- «Watt-irensleak» ingurumen-hezkuntza programa, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleekin.
- FIESTA programaren hirugarren zozketa 2017ko ekainaren 5ean antolatu zen, eta 2017ko ekainaren 22an eman ziren zegozkion sariak.

POBREZIA ENERGETIKOA

Honako lan hauek egin dira 2017an:

- Pobrezia energetikoari buruzko lehen azterketa prospektiboa. Azterketa kualitatibo bat da, egindako diagnostikoak ez ezik, orain arte garatutako esku-hartze estrategiak ere biltzen dituena.

- Pobrezia energetiko, genero eta parte-hartzeari buruzko 1. jardunaldia, azaroaren 16an.
- Hezkuntza energetikoari buruzko 6 lantegiko zikloa. 2017ko urritik azarora bitartean hezkuntza energetikoari buruzko 6 lantegi antolatu ziren, herritarrentzat oro har, energiaren, energia berriztagarrien, merkatu elektrikoaren, faktura-azterketaren, aurrezteen eta abarren gaineko ideia nagusiak azaltzeko. Guztira, 47 lagunek hartu dute parte.